

## **Proiektuaren Deskribapena**

Gure enpresak gizarteko denbora arazoak ebazten ditu. Eskaintzen dugun zerbitzuak bi sail ditu: denbora aurrezteko asistentzia: gure bezeroei denbora beharra asetzeko eta denbora librea izateko eskaintzen dugun zerbitzu pertsonalizatua da. Horretarako, bezeroarentzat egin beharrezkoak diren zereginak gauzaten ditugu. Honek egin behar dituen enkarguak burutzen ditugu bere ordean. Horretarako, pertsona espezializatuak ditugu zerbitzu mota bakoitzean.

Coaching tenporala: Programa informatiko baten bitartez gure bezeroen denbora administratzen duen aplikazio bat diseinatu dugu. Eguneroko plangintza, asteburuetakoa eta orduz-ordu egin beharrezkoak programatzen ditugu. Honen helburua, pertsona bakoitzak egutegi eta ordutegi pertsonalizatu batekin, nolabaiteko denbora aurrezteko eta askatasuna lortzeko helburua betetzea da, gainera, zerbitzu honen bitartez, etorkizunean bezeroak automatikoki denbora administratzea ikasten dute, eta horrela, bizitzaz gehiago disfrutatzeko eta ondorioz bizi kalitate hobea izateko aukera ematen dugu. Honetarako, atal desberdinetan banatu dugu enpresa: Hezkuntza saila, administrazio-enpresa saila eta etxeko-zerbitzuen saila.